



*NICOLE & MARTIN: sarrera 3 € eta www.bilbokokalealdia.eus Web-Orrian eskuratu daitezke. Batutako dirua "Asociación Socio-Cultural y de Cooperación al Desarrollo Ucrania-Euskadi" elkarteari emango zaio.

**AMER KABBANI eta LOS GALINDOS: gonbidapena behar duen ikuskizuna eta www.bilbokokalealdia.eus Web Orrian egin daitezke erreserbak.

EKAINA

ASTELEHENA 27

CASILDA ITURRIZAR PARKEA

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)

MYSTÉRIEUSES COIFFURES (Euskal Herria - Iparralde) Ipuin misteriotsu batetik ateratako lorategia (arratsalde osoa)

17:00 PARKEAREN INGURUAN

PANPOTX KULTUR ELKARTEA (Euskal Herria)
(Kafe bat Casildarekin (arratsalde osoa)

17:00 PARKEAREN INGURUAN

BRASSASS (Argentina) (45 min)

17:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

KEEP COMPANY (Frantzia) Compost (45 min)

18:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

LES MALLÉS CIE. (Suitza) Manto (35 min)

18:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ERTZA (Euskal Herria) OTEMPODIZ (25 min)

19:00 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA

PANORAMA KINO THEATRE (Suitza) BilbaOrama (100 min)

19:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)

NICOLE & MARTIN (Suitza) Wasilisa (70 min)*

19:30 PERGOLA

DAS ARNAK (Frantzia) Bikini (40 min)

20:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

KEEP COMPANY (Frantzia) Compost (45 min)

20:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

LES MALLÉS CIE. Manto (Suitza) (35 min)

22:00 ARRIAGA PLAZA

NUEVEUNO CIRCO CÍA. (Madril) Suspensión (60')

MARTITZENA 28

CASILDA ITURRIZAR PARKEA

12:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ERTZA (Euskal Herria) OTEMPODIZ (25 min)

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)

MYSTÉRIEUSES COIFFURES (Euskal Herria - Iparralde) Ipuin misteriotsu batetik ateratako lorategia (arratsalde osoa)

17:00 PARKEAREN INGURUAN

PANPOTX KULTUR ELKARTEA (Euskal Herria) (Kafe bat Casildarekin (arratsalde osoa)

17:00 PARKEAREN INGURUAN

LES RUSTINES DE L'ANGE (Frantzia) Ça va valser (45 min)

17:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

TRAKAMATRAKA (Euskal Herria) Matraka Culinary Center (50 min)

18:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

TOBIA CIRCUS (Italia) Equilibrium tremens (30 min)

18:30 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA

PANORAMA KINO THEATRE (Suitza) BilbaOrama (100 min)

19:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)

NICOLE & MARTIN (Suitza) Wasilisa (70 min)*

19:30 PARKEAREN INGURUAN

LES RUSTINES DE L'ANGE (Frantzia) Ça va valser (45 min)

20:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

TOBIA CIRCUS (Italia) Equilibrium tremens (30 min)

20:30 PERGOLA

DAS ARNAK (Frantzia) Bikini (40 min)

22:00 ARRIAGA PLAZA

PISTACATRO + BILBOKO UDAL MUSIKA BANDA (Galizia / Euskal Herria) Orquesta de malabares (75 min)

EKAINA

EGUAZTENA 29

CASILDA ITURRIZAR PARKEA

12:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

TRAKAMATRAKA (Euskal Herria) MatraKa Culinary Center (50 min)

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)

MYSTÉRIEUSES COIFFURES (Euskal Herria - Iparraldeak) Ipuin misteriotu batetik ateratako lorategia (arratsalde osoa)

17:00 PARKEAREN INGURUAN

PANPOTX KULTUR ELKARTEA (Euskal Herria)
(Kafe bat Casildarekin (arratsalde osoa))

17:00 PARKEAREN INGURUAN

LES RUSTINES DE L'ANGE (Frantzia) Ça va valser (45 min)

17:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

Ô QUEL DOMMAGE CIE. (Belgika) Room service (30 min)

18:00 PERGOLA

LA TRAPEACIONISTA KIA. (Euskal Herria - Nafarroa) Artxapielago (40 min)

18:30 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA

PANORAMA KINO THEATRE (Suitza) BilbaOrama (100 min)

19:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)

NICOLE & MARTIN (Suitza) Wasilisa (70 min)*

19:30 PARKEAREN INGURUAN

LES RUSTINES DE L'ANGE (Frantzia) Ça va valser (45 min)

20:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

Ô QUEL DOMMAGE CIE. (Belgika) Room service (30 min)

20:30 SAN FRANTZISKOKO HIRI ORTUA (Mariaren Bihotza plaza)

LOS GALINDOS (Katalunia) MDR-Muerte de risa (60 min)**

22:00 PLAZA BIRIBILA - ARRIAGA PLAZA

HORTZMUGA TEATROA & DEABRU BELTZAK (Euskal Herria) SENTA.
Noraezean (50 min)

EGUENA 30

18:00 PLAZA BARRIA

ZIRKOZAUURRE (Euskal Herria) Kobr3 (50 min)

18:30 BIZIKIDETASUN PLAZA (Isozaki Dorreen artean)

MADUIXA CÍA. (Valentziako Erkidegoa) Migrare (40 min)

19:00 NERBIOI ITSASADARRA (Erribera Zubiaaren parean)

LE PIANO DU LAC (Frantzia / Asturias) Swing and Swim,
a bordo del Piano de los Mares (60 min)

20:00 SAN FRANTZISKOKO HIRI ORTUA (Mariaren Bihotza Plaza)

LOS GALINDOS (Katalunia) MDR-Muerte de risa (60 min)**

20:30 PLAZA BARRIA

ZIRKOZAUURRE (Euskal Herria) Kobr3 (50 min)

21:00 VILLARIAS/BUENOS AIRES BIDEGURUTZEA - GAS PLAZA

HORTZMUGA TEATROA & DEABRU BELTZAK (Euskal Herria) SENTA.
Noraezean (50 min)

22:30 ARRIAGA PLAZA

TRUCA CIRCUS (Andaluzia) Sopla! (55 min)

UZTAILA

BARIKUA 1

18:00 ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN

CHRIS IRIS (Alemania) GAP of 42 (35 min)

18:30 BIZKAIA ARETOA - UPV/EHU

DELREVÉS DANZA VERTICAL (Katalunia) Finale (20 min)

19:00 PLAZA BARRIA

HIKA TEATROA & OINKARI DANTZA TALDEA (Euskal Herria) Gazte (65')

19:30 BIZIKIDETASUN PLAZA (Isozaki Dorreen artean)

KOLEKTIV LAPSO CIRK (Katalunia) Ovvio (50 min)

20:00 GAS PLAZA

LA INDUSTRIAL TEATRERA (Katalunia) Herencia (55 min)

20:30 NERBIOI ITSASADARRA (Erribera Zubiaren parean)

LE PIANO DU LAC (Frantzia / Asturias) Swing and Swim, a bordo del Piano de los Mares (60 min)

21:30 ARRIAGA ANTZOKIAEN ALBOAN

CHRIS IRIS (Alemania) GAP of 42 (35 min)

22:00 BIZKAIA ARETOA - UPV/EHU

DELREVÉS DANZA VERTICAL (Katalunia) Finale (20 min)

23:00 AREATZA-ERRIPA KAIA (Nerbioi Itsasadarraren gainetik)

NOSTRAXLADAMUS (Aragoi) Volatineros (45 min)

ZAPATUA 2

18:00 ARRIAGA ANTZOKIAEN ALBOAN

DANTZAZ (Euskal Herria) Basoa (35 min)

18:30 PLAZA BARRIA

KOLEKTIV LAPSO CIRK (Katalunia) Ovvio (50 min)

19:00 GAS PLAZA

MANOLO ALCÁNTARA (Katalunia) Maña (60 min)

19:30 BIZIKIDETASUN PLAZA (Isozaki Dorreen artean)

LA MACANA (Galizia) Pink Unicorns (75 min)

20:00 SAN FRANTZISKOKO HIRI ORTUA (Mariaren Bihotza Plaza)

AMER KABBANI (Katalunia) Runa (45 min)**

20:30 ARRIAGA ANTZOKIAEN ALBOAN

DANTZAZ (Euskal Herria) Basoa (35 min)

21:30 ARRIAGA PLAZA

NACHO VILAR PRODUCCIONES & YLLANA (Murtzia) Glubs (60 min)

22:00 SAN FRANTZISKOKO HIRI ORTUA (Mariaren Bihotza Plaza)

AMER KABBANI (Katalunia) Runa (45 min)**

23:00 AREATZA-ERRIPA KAIA (Nerbioi Itsasadarraren gainetik)

NOSTRAXLADAMUS (Aragoi) Volatineros (45 min)



AMER KABBANI (Cía. 104º) (Katalunia)

“Runa” – Zirkua / Kaleko antzerkia (45 min). 7 urtetik gorakoentzat.

Sutan dagoen munduaren hondakinen artean, *Runa* agertokian agertzen da, norberaren eta taldearen berreraikitze-prozesu baten lekuko gisa.

Amer Kabbani zirkua-artistak -jatorri katalana eta siriarra ditu- Rolando San Martín zuzendariarekin batera, autofikzioaren generoa aztertzen du kristalezko burbuila dimentsionatzeko. Burbuila horrek europar arrazializatuaren testuingurua babesten du gerren errealitate gordinetik.

Gure erosotasun-eremuaren, komunikabide masiboetako pantailen beste aldean dagoena ikusi ikusten dugu, baina irudiek ez dute balek bezainbeste zeharkatzen gure gorputzak.

Ikuskizun honetako zirkuko diziplinak, portor teknika akrobatikoaren bidez, bizitzari eustea esan nahi du, gorputzarekin eta metaforekin, hitzak elkarrekin bizi diren baina iristen ez diren lekuetan.

<http://www.lamaleta.cat/es/companies/cia-104o-2/>

UZTAILAK 2 ZAPATUA

20:00 / 22:00

SAN FRANTZISKOKO HIRU ORTUA
Maria Bihotzaren Plaza

**Gonbidapena behar duen ikuskizuna eta www.bilbokalealdia.eus
Web Orrian egin daitezke erreserbak.

BRASSASS (Argentina)

Musika (45 min). Adin guztietako ikusleentzat.

“Brassass” haize-instrumentuak eta perkusioa konbinatzen dituen musika-taldea da. Ipar Amerikako brassband tradizionalen antzera sortua, taldea osatzen duten arofonoen familatik (brontzeak, kasu honetan) datorkio izena.

Konposizioak jazzaren, hip hoparen, soularen eta rockaren ingurukoak izan daitezke; hala ere, estilo klasiko horiek Latinoamerikako beste genero batzuekin nahasteak eman die itzala. Horrela, *Brassass*-ek betiko brassband baten musika-baseak mantentzen ditu, baina bertako melodiak eta erritmoak garatzea du bereizgarri.

EKAINAK 27 ASTELEHENA

17:00

CASILDA ITURRIZAR
PARKEAREN inguruan



CHRIS IRIS (Alemania)

"GAP of 42" – Zirkua (35 min). 8 urtetik gorakoentzat.

Akrobaziak egiten dituzten bi gorpuzteko topo egiten dute.

42 zentimetroko aldea altueran, 42 kg pisuan.

Nola liteke gorpuzte horiek elkarrekin aritzea? Nola egiten dira bata bestearen osagarri ia modu simbiotikoan? Non dituzte mugak?

GAP of 42 lanean akrobazia bikainek eta komediak bat egiten dute. Gai filosofikoak eta ezohiko irudiak planteatzen dira, eta zentzugabeko uneak ere sortzen dira.

Akrobaziak doitasunez eta erraz. Zirrarragarria, dibertigarria eta sakona.

<https://www.chris-iris.com/>

UZTAILAK 1 BARIKUA

18:00 / 21:30

ARRIAGA ANTZOKIAREN
alboan



DANTZAZ (Eukal Herria)

"Basoa" – Dantza (35 min). 10 urtetik gorakoentzat.

Basoa. Estalkia. Gordelekua. Magiaz betetako lekua edota beldurgarria. Historiako momentu tragiko jakin bat ezkutatu eta ahaztu nahi zuen basoak.

Errefuxiatuen kanpalekua, kontzentrazio esparrua... Gurs, milaka pertsona metatu eta hil ziren barrendegia.

Historikoki eta geografikoki hurbil dugun kokalekua. Gurs, hausnarketa eragiten duen abiapuntua. Guden eta pobrezia-erandiorz beren lurraldea uztera behartuta dauden milaka pertsona errefuxiatuen erakusleho. Gurs, iraganaren eta orainaldiaren zubia.

Josu Mujika koreografoa eta Iñaki Salvador konposatzailea elkarrekin aritu dira pieza hunkigarri hau sortzeko, errefuxiatuen drama kontatzeko, eta haien harremana artea, kultura eta sorkuntzarekin. Xabier Sukia idazlearen hitzek laguntzen dute sorkuntza, eta edertasunez janzten dute koreografia osoa.

Zergatik, noiz arte, zergatik, zergatik...?

<https://dantzaz.eus/>

UZTAILAK 2 ZAPATUA

18:00 / 20:30

ARRIAGA ANTZOKIAREN
alboan



© Umore Azoka 2022 argazkia



DAS ARNAK (Frantzia)

“Bikini” – Zirkua / Dantza (40 min). 7 urtetik gorakoentzat.

Oso desberdinak diren hiru artistek kliseak eta haietan dauden ohiturak arakatzeko dituzte, masta txinatarraren, dantzaren eta kapilotrakzioaren inguruan. Esekiduratik harago hurbiltzen dira kapilotrakzioa, eta lengoia garatzen dute, teknika hori idazketaren erdigunean eta agertokiarekin duten erlazio triangeluarrean jarri: luzatu, altxatu, atxiki eta elkarri laguntzen diote. Elkar elikatzen duten eta aurrez aurre jartzen diren hiru energiak osatzen dute topaketa hori, hau da, look berri baten bila dabiltzan hiru emakumek, eta poliki-poliki eraldaketa eragiten dute. *Bikini* kimera hibridoa da, hiru buruko frantziar-mexikar-daniar piztia!

DELREVÉS DANZA VERTICAL (Katalunia)

“Finale” – Dantza bertikala (20 min). Adin guztietako ikusleentzat.

“Dantza klasikoa beste ikuspegi batetik begiratuta.”

Finale dantza klasikoko pieza bat da, mugimenduaren euskarriarako arkitektura erabiltzen duena. Ikuskizunak ikusleari eskaintzen dio dantza klasikoa gozatzeko aukera, agertoki-espazio berri batean, ohiko testuingurutik kanpo, balleta eramanda hiriko etxaurre batera edo gune natural batera. Publikoak ezagutuko dituen pieza klasiko ospetsuak eskaintzen ditu, eta horretarako hainbat balleten elementuak jasotzen ditu, esaterako *Beltxargen aintzira*, *Inxaur hauskailua* eta *Giselle balletetatik*.

EKAINAK 27 ASTELEHENA	19:30	CASILDA ITURRIZAR PARKEA Pergola
EKAINAK 28 MARTITZENA	20:30	

<https://www.del-reves.com/>

UZTAILAK 1 BARIKUA	18:30 / 22:00	BIZKAIA ARETOA - UPV/EHUko fatxada
---------------------------	----------------------	------------------------------------



ERTZA (Euskal Herria)

"Otempodiz" – Dantza (25 min). Adin guztietako ikusleentzat.

Esan ohi da mendebaldean denbora zenbatu, neurtu, erosi, saldu, planifikatu, antolatu egiten dela; ondasun objektiboa da, gizakiarengandik aparte dago eta gauzak egiteko erabiltzen dugu, baina gehienetan fallia izaten dugu. Afrikan, ordea, denbora bizi, eduki, egin egiten da; gizakiaren berezko ondasun subjektiboa da, esanahia du eta ia inoiz ez da falta. Munduko leku jakin batean jaiotzeak ezinbestean markatzen du gure denbora-nozioa, eta ezer aldaezina ez bada ere, nekez aldatuko dugu eskuratutako lehen nozio hori. Denbora modu askotan bizi daiteke, baita haren esklabo izanda ere; baina ezin da ukatu, eta horrek munduko edozein txokotan balio du, dantzak boterea ematen digula, edozein dela ere dantzaren jatorria, generoa edo baldintza, denbora erabateko orainaldian bizitzeko.

Otempodiz (Eltiempodice) bi norabideko truke eta sorkuntza artistikoko proiektu baten emaitza da, Mozambikeren eta Euskadiren artean egituratzen dena. Proiektu horrek lan-aukera bat eta dantzaren nazioarteko zirkuituetan beren kabuz moldatzeko oinarritzko tresnak eskaini nahi dizkie Maputoko bi dantzariri.

<http://www.ertza.com/>

EKAINAK 27 ASTELEHENA	18:30	CASILDA ITURRIZAR PARKEA Ahate Urmaelaren ondoan
EKAINAK 28 MARTITZENA	12:00	



HIKA TEATROA & OINKARI DANTZA TALDEA (Euskal Herria)

“Gazte” – Dantza (60 min). 5 urtetik gorakoentzat.

Hitzontziak dira. Totalak. Oitategiko oiloen antzera nekez isiltzekoak.

Beti indarrez gainezka. Dantza egitea dute gustuko. Baina ez dantza bakarrik, eh! Dantza gain, musika entzun, musika egin, kirola praktikatu, ikasi... Natur zaleak ere badira, bidaizaleak, parrandero amorratuak, sexuan ekintzaileak.

Ez dira ergelak. Ez dira tuntunak. Ez dira zuetako batzuk uste duzuen moduko buruarinak. Oinak dituzte arin-arinak... Eta bihotza beti saltoka

Guztion antzera, hauek ere elkar sentitzea behar dute. Besarkadetan bildu, egonean egon, elkarri begiratu eta elkar ulertu.

Hau oliotegi inperfektua eta errebeldea! Gazteak dira, ez dira konforma errazak eta ez daude gauza askorekin konforme. Gizarte honek ezarritako rolekin, etiketekin, aurritziekin, askatasun murrizketekin, hizkuntza sistemarekin, mozal legeekin, inongo mugekin.

<https://hikateatroa.eus/>

UZTAILAK 1 BARIKUA	19:00	PLAZA BARRIA
--------------------	-------	--------------

SENTA



HORTZMUGA TEATROA & DEABRU BELTZAK (Euskal Herria)

“SENTA. Noraezean” – Kaleko antzerkia (50 min).
Adin guztietako ikusleentzat.

SENTA, mamu ontziaren buru eta gidari, iparra galduta dabil. Ez daki non dagoen, ezta norantz nabigatzen duen ere; amorru bizian marru eginez noraezean dabil. Egun batean, tripulazioaren agintea hartzea erabakiko du, munduari indarrez kantatzeko. Oraingoan, berak erabakiko baitu noragabea ibiltzea; noraezean baina duintasunez.

Izan ere, batzuetan ez dago kairik porturatzeke, ezta orekaz tinko mantenduko gaituen lur sendorik zapaltzeko ere. Baina bizitza maitatu eta ospatu behar dugu eta, suzko kantuz, gure atsekabea abestu.

Ikuskizun ibiltaria, musikala eta antzerkiratua. Gaubelak gozatzeko kaleko opera miresgarria.

<http://hortzmuga.com/>
<https://deabrubeltzak.com/>

EKAINAK 29 EGUAZTENA

22:00

PLAZA BIRIBILA -
ARRIAGA PLAZA

EKAINAK 30 EGUENA

21:00

Villarias/Buenos Aires
Bidegurutzea - GAS PLAZA



KEEP COMPANY (Frantzia)

"Compost" – Zirkua (45 min). 7 urtetik gorakoentzat.

Pertsona bi, isolatuta, lurrean kukubilkatuta, hibernatzen baleude bezala. Pixkanaka, lozorrotik esnatu ondoren bezala, argiaren energiaren arabera hedatzen dira.

Animaliak ala landareak? Ez du axola. Garrantzitsua da konturatzea mugitzeko gaitasuna dutela eta, batez ere, laster bientzako koreografia bat osatuko dutela.

Haurren pozaren pare, inguruarekin liluratuta daude. Munduaren hasiera bailiran, joko akrobatikoen bidez paisaia osatzen duen guztiarekin elkarreragitea bilatuz.

Baina naturala ez den objektu bat agertuko da beren espazioan, eta oreka delikatua asaldatuko du: kubo bat gurgilen gainean, zeinaren angeluek eta lerroek kontraste egiten baitute figura akrobatikoen biribiltasunarekin eta fantasiarekin.

"Makina" hori egurrezkoa eta metalezkoa da batez ere, eta, labana suitzarren antzera, mekanismo ugari ateratzen zaizkio, zein baino zein ezigauzagoa.

Sistema sofistikaturik da, patetikoa bezain sofistikaturik, eta pixkanaka espazioa inbadituko du eta pertsonaien mugimendu-askatasuna gero eta gehiago murriztuko du.

Aurrerabidearen metafora, askatu adina suntsitzen eta alienatzen duena?

<https://www.2r2c.coop/2r2cms/création/production-déléguee/compost-keep-company/>

EKAINAK 27 ASTELEHENA

17:30 / 20:00

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren ondoan



KOLEKTIV LAPSO CIRK (Katalunia)

"Ovvio" – Zirkua (50 min). Adin guztietako ikusleentzat.

Ovvio batere zerikusirik ez duten bi pertsonen arteko topaketa da; bi persona horiek, hala ere, arrisku-premia bera dute, fisikak eta kasualitateak porrot eginarazi aurretik noraino irits daitezkeen jakiteko premia izugarria. Non dago erori aurreko perfekzio-unea?

"Jolasa" da muga hori bilatzeko modua, hau da, konfiantza, lotzen dituen eta jarraitzera bultzatzen dituen soka.

Ovvio erronka bat da.

Eszenatokian bi pertsonaia –berehala jabetzen gara haien arteko desberdintasunez–, eta zurezko plantxen eta barren arkitektura daude.

Ekintza goranzko tentsio- eta adrenalina-klimax baterantz doa, agertzen den eraikuntza bakoitza aurrekoa baino arriskutsuagoa eta ustekabekoagoa da, orekak gero eta ezinezkoagoa dirudi.

Umore Azoka Saria Ikuskizun Onenari/Konpainia Hasi Berriari (2018); Zirkolika Saria Aretoko Zirkuko Ikuskizun Onenari (2019) eta Valladolideko Kaleko Arteen Nazioarteko Jaialdiko Saria, Zirkuko Ikuskizun Onenari (2021).

<http://lapsocirk.com/>

UZTAILAK 1 BARIKUA

19:30

BIZIKIDETASUN PLAZA
Isozaki Dorreen artean

UZTAILAK 2 ZAPATUA

18:30

PLAZA BARRIA



LA INDUSTRIAL TEATRERA (Katalunia)

"Herencia" – Klowna / Zirkua (55 min). 5 urtetik gorakoentzat.

Clown ikuskizun honek gogoeta egiten du uzten diguten eta uztea gustatuko litzagukeen munduaz. Bi pertsonaia zabortege batean botata... Bertan bizitzera ohitu... eta bat-batean dena aldatzen da. Bidaia xamur eta dibertigarri bat eskaintzen dizuegu, gure herentzia transformatzeko.

<https://industrialteatrera.com/>

UZTAILAK 1 BARIKUA

20:00

GAS PLAZA



LA MACANA (Galizia)

"Pink Unicorns" – Dantza (70 min). 8 urtetik gorakoentzat.

Ikuskizunaren erronka da aita bat seme nerabearekin eszenaratzea.

Alexis Fernández, nazioartean dantzari gisa esperientzia handia duen galiziarra da, jatorria Kuban badu ere, Paulo semearekin dantatzeko erronka handiari aurre egin behar diona. Hemezortzi urteko mutila da Paulo, atletikoa eta sortzailea, energiaz betea eta bere ikuspegi "millennial" a aitarekin konparatzeko gogoz.

www.lamacana.es/

UZTAILAK 2 ZAPATUA

19:30

BIZIKIDETASUN PLAZA
Isozaki Dorreen artean



© Umore Azoka 2022 argazkia



LA TRAPACIONISTA KIA. (Euskal Herria - Nafarroa)

“Artxipielago” – Zirkua / Dantza (40 min). 6 urtetik gorakoentzat.

Artxipielagoa funtsezkoenera itzultzeko beharretik sortu da. Funtsezkoa zer den jakiteko beharretik.

Zer geratzen zaigu bizi izan dugun horretatik? Zerk balio du eta zerk ez? Zer utzi behar dugu albora gure bidaiarekin jarraitu ahal izateko? Zeintzuk dira irauten duten oroitzapenak? Edo astunak egiten zaizkigunak? Zerk zailtzen digu ibiltzen jarraitzea? Eta zerk errazten digu joan nahi dugun lekura eta joan nahi dugun moduan joatea?

Aldatuz doan paisaia pertsonaia nagusia galderak horiek markatutako ibilbide fisiko, emozionala eta espaziala biziko du.

Artxipielago trapezio finkoko hiru ekitaldik osatzen dute, non haria mugimendua izango den, dantza.

LE PIANO DU LAC (Frantzia / Asturias)

“Swing and Swim, a bordo del Piano de los Mares” – Musika / Kaleko antzerkia (60 min). Adin guztietako ikusleentzat.

Irudikatu korronteen gainean aurrera egiten duen piano bat, ekaitzei desafiaio eragiten diena, bere sinfonia berezia itsasertzetatik zabaltzeko. Irudikatu piano-itsasontzi bat, itsasoak zeharkatzeko, edozein hondartzatara iristeko eta itsasadarrak ainguratzeko gai dena; portu onera iristen den piano bat, bere melodiak proiektatzen dizkiona Erriberako zubian lasai-lasai egoten den jendeari. Piano, belaontzi eta kitesurfer arteko hibridoa, Bilbon atrakatu duena aurreneko estatuan.

Piano-itsasontziaren barruan, “Y Swing 276” hirukotea doa, “Le Piano du Lac” konpainiari lotu berria. Chanson francaiseren eta jazzaren klasikoak errepasatuko dituzte. Musika olatuen gaineko giro gorabeheratsu batera eramango zaitu, 40ko eta 50eko hamarkadetako herri-dantzetako *retro-guinguette* girora. *L'écume du swin* (swingaren aparra) bere sorkuntza berria, itsasoetako pianoan ontziratzen da Europa osoko urak zeharkatzeko.

<https://www.pianodulac.eu/>

EKAINAK 29 EGUAZTENA

18:00

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Pergola

EKAINAK 30 EGUENA

19:00

NERBIOI ITSASADARRA
Erribera Zubiaaren parean

UZTAILAK 1 BARIKUA

20:30



LES MALLES CIE. (Suitza)

"Manto" – Zirkua / Klown / Dantza / Txotxongiloak (35 min). 5 urtetik gorakoentzat.

Georges eta Victoria poliki-poliki agertzen dira beroki bat duen esekigailu batetik, eta introspekzio-une bat eskaintzen dute. Dantza, antzerkia eta txotxongiloak nahastetik dator euren poesia.

Manto ikuskizun bitxi eta hunkigarria da, denboraren joana aztertzen duena gure bizitzetan eta zahartzearen ukoan. "Les Malles" lanak fantasiaren, irudimenaren eta giza harremanen arteko oreka eta sententzioak ditu inspirazio-iturri, ikuskizun visual eta poetikoa eraikitzeko.

<https://www.compagniesmalles.com/>

EKAINAK 27 ASTELEHENA

18:00 / 20:30

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren ondoan



LES RUSTINES DE L'ANGE (Frantzia)

"Ça va valser" – Musika / Kaleko antzerkia (45 min).
Adin guztietako ikusleentzat.

Led Zeppelinekin hasi Marc Perronerekin amaitu, Madness eta Bourvilla tartean direla, *Ça va valser* sei akordeonistek osatzen dute, dantza egin nahi dutenentzat, ikusi nahi dutenentzat edo, besterik gabe, entzun nahi dutenentzat jotzen dute. Ikuskizun musikal eta koreografiatua da, estandarrak, poesia eta rocka desafiatzen dituen, publiko zorrotzarentzat eta hain zorrotz ez direnentzat. *Ça va valser* poza da, beste ezeren gainetik.

<https://lesrustinesdelange.fr/>

EKAINAK 28 MARTITZENA

EKAINAK 29 EGUAZTENA

17:00/19:30

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren ondoan



LOS GALINDOS (Katalunia)

"MDR - Muerte de risa" – Zirkua / Klown (60 min). 12 urtetik gorakoentzat.

MDR deseroso sentiarazteko eta dibertitzeko fartsa bat da.

Melonek, Mardik eta Rossinyolek ustekabeko gatazka bati egin behar diote aurre. Beren izaera basati eta traketsak eta existitzeko beharrak obra gertagoitz batera daramatza, eta bertan askatasunez esploratzen dute edozein basakeria. Esperientzia barre-eragile eta izugarri horrek adiskidetasun zintzo eta latz baten historia kontatzen du, erantzukizun- eta erru-sentimenduak eraginda. Krimen gertagoitza, epaiketa zalantzagarria eta zigor zentzugabea. Paradoxikoa bada ere, agian barrez lehertzeko gogoia eragingo dute.

Publikoaren Saria Valladolideko 2021eko Kaleko Arteen Nazioarteko Jaialdian.

<http://losgalindos.net/>

EKAINAK 29 EGUAZTENA	20:30	SAN FRANTZISKOKO HIRI ORTUA
EKAINAK 30 EGUENA	20:00	Mariaren Bihotza Plaza

** Sarrera gonbidapenarekin. www.bilbokokalealdia.eus
Web Orrian erreserbatu ahal izango dira.



MADUIXA CÍA. (Valentziako Erkidegoa)

"Migrare" – Dantza (40 min). 12 urtetik gorakoentzat.

Lau emakume eta espazio huts bat. Hutss, baina oztupoz eta muga ikusezinez bete, gorroto irrazionalaz eta aurreiritziz. Emakumeek sortetria utzi behar izan zuten, eta, orain, jomugako herrialdeak baztertu egiten ditu. Beren lekua bilatzen ari dira. Bizitzeko, egoteko, errotzeko, izateko leku bat. "Etxe" deitzeko moduko leku bat. Horixe eskatzen dute, besterik ez. Eta hori lortzeko borrokatuko dira.

Ikuskizun hau euren borroka da. Emakume indartsuen, ausarten eta, batez ere, erresilienteen, borroka.

Hankamakilak funtsezko elementu dira istorio bat kontatzeko "Madiuxa" konpainian; hain zuzen ere, euren ezaugarri bihurtu dira eta dantzaren, keinuen eta orekaren arteko harremana artikulatzeko aukeren unibertsoa irekitzen dute.

Moritz FiraTárrrega Saria Estreinaldi Onenari 2021ean.

<http://madiuxacreacions.com/>

EKAINAK 30 EGUENA	18:30	BIZIKIDETASUN PLAZA Isozaki Dorreen artean
--------------------------	--------------	---



MANOLO ALCÁNTARA (Katalunia)

“Maña” – Zirkua / Instalazioa (50 min). Adin guztietako ikusleentzat.

Maña zuzeneko instalazio-ikusbizuna da, gardena, eta hasiera-hasieratik agerian uzten ditu zeintzuk diren asmoak eta helburuak: arku erraldoi bat eraikitzea kutxa oso astunekin, ahalik eta indar gutxien erabiliz, teknologia ezegonkor eta zahar baten laguntzaz, baina egunean dagoena eta teknologia ateporala duena, bidea asko nabarmenduz. Ikusbizunaren gakoa asmakizuna da.

2021eko Zirku Sari Nazionala, Espainiako Gobernuak Kultura eta Kirol Ministerioak emana.

<https://www.ciamanolalcantara.com/>

UZTAILAK 2 ZAPATUA

19:00

GAS PLAZA

MYSTÉRIEUSES COIFFURES (Euskal Herria - Iparralde)

“Ipuin misteriotso batetik ateratako lorategia” – Instalazioa (arratsalde osoa). Adin guztietako ikusleentzat.

Lore-bitxikerietan esperientzia duen ikertzaile bik erabaki dute Casilda Iturrizar parkea ikerketa-lorategi bihurtzea Bilboko Kalealdia Jaialdia barruan, kolore guztietako lore bakarrak eta onirikak sortzeko.

2021ean apustu bat egin zuten, 1.001 loreen lorategia sortzea, 2024ra arte!

Aurten, lore berriak zoro antzean dabilkien irudimenetik aterako dira.

Loreak kuxinak bailiran, zurtoin luzeko loreak, erroen antzera aukietan edo eskaileretan kiribiltzen direnak... 2021ean Parkerako sortu zituzten eta izen arraroak zituzten loreei gehituko zaizkie.

Erdu Casilda Iturrizar parkeko lorategira, ipuin batean zaudela pentsatuko duzu-eta!

EKAINAK 27 - 28 - 29

17:00etatik aurrera

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren ondoan



NACHO VILAR PRODUCCIONES & YLLANA (Murtzia)

"Glubs" – Kaleko antzerkia (60 min). Adin guztietako ikusleentzat.

Lau marinela zoro galduta azaltzen dira barrualdean, naufragio zalapartatsu baten ondoren. Hortik aurrera, helburu bakarra izango dute: beren barkua lehenbailehen eramatea portu batera, itsasoratzeko. Umorearen epopeia epiko honetan, gure marinelek marrazoak arrantzatuz, loro zoroekin topatu edo bataila barregarriak izango dituzte, ikusleak eurekin eramanaz hamaika egoera zentzugabetan barrena, atzean itsasoaren mundu seduktorea dagoela.

<http://nachovilar.com/>

UZTAILAK 2 ZAPATUA

21:30

ARRIAGA PLAZA



NICOLE & MARTIN (Suitza)

"Vasilisa" – Zirkua (70 min). 6 urtetik gorakoentzat.

Gizon bat Vasilisa alabarekin, alabaorde birekin eta bigarren emaztearekin bizi da basotik gertu dagoen txoko zahar batean. Ama-alabak jeloskor daude Vasilisarekin, oso eder eta langilea delako. Horregatik, Vasilisak gogor lan egin behar du eta gauza asko jasan. Baina amak hil aurretik eman zion panpina batek laguntzen dio. Horri esker, Vasilisa oso ona da ehungintzan. Laster, alkandorak egiteko baimena ematen dio zar-ak eta mailemindu egiten da. Harrezkero, zoriontsu bizi izan ziren hil arte zar-a eta zarina.

"Nicole & Martin" bere publikoaren bila doaz, eta karparen azpian laguntzeko gonbita egin diote. Karabanetan bizi dira, eta urtean zortzi hilabetez Europa osoan barrena bidaiatzen dute kupula baten itxura duen antzoki batekin.

<https://nicole-et-martin.ch/es/team/nicole-martin/>

27 - 28 - 29 JUNIO

19:00

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Añate Umelaren ondoan

*Sarrera 3 € eta www.bilbokokalealdia.eus Web-Orrian eskuratu daitezke. Batutako dirua "Asociación Socio-Cultural y de Cooperación al Desarrollo Ucrania-Euskadi" elkarteari emango zaio.



NOSTRAXLADAMUS (Aragoi)

“Volatineros” – Zirkua (45 min). 5 urtetik gorakoentzat.

2022ko Bilboko Kalealdia jaialdirako sortu zen ikuskizuna, Nerbioi itsasadarrean (Areatza-Erippa kaia).

Zubi bat hodeien artean, ametsetara etzanda dagoen hari bat, ilusiorako urrats bat... 90 metroko kablea 10 metroko altueran, trapezio bat eta masta txinatarrakablearen gainean, hiru funanbulista, bi akrobata eta hiru musikari zerurako erdi bidean. Alturako ikuskizuna, diziplina anitzekoa, poetikoa eta bisuala, adin guztietako ikusleentzat. Sentiitzeko eta irudimena askatzeko lana.

Artista hegalaria, soinuen ehuleak, ilusio-egileak... Zoru irmoaren segurtasun faltsutik ihes egiteko, horizontaletik urruntzeko eta arriskuari aurre egiteko prestutasunarekin iritsi dira, mundua beste ikuspegi batetik behatzeko, orekaren bila bizitza hutsera igotzeko, harmonia lortzeko eguneroko itomenetik ihes egiteko.

Batzuetan, segurtasunaren korazatuan babesten gara, hilobi bateko bizitza babestuz, inork ez dezan hil. Baina ilusioa behar dugu, ametsak, ezinezkoak, existentziari bizia emateko. Lastatik askatu behar dugu, loturak askatu, ausardia izan eta hutsunea sortu gure inguruan, hegala zabaltzeko, eta, azken batean ... Hegan! Hemen, alambrea, bizitza bihurtzen da urrats batean aurrera egitea bezain sinplea eta zirragarria, bihotzak lasai egiten duen leku, bizitzarekin dantzatzeko asmoz. Beharbada, bizitza une horretanxe dago, eta gainerakoak itxaron egin behar dute.

Bizitzea erronka da. Eta, gure kasuan, grabitateari erronka egitea, zentzu guztietan. Zergatik? - Galdetuko du bizimodua arrazoiaren bidez ikusten duenak. Zergatik ez? - Bizitza ametsen bidez ikusten dugunok galdetzen diogu geure buruari”

UZTAILAK 1 BARIKUA

23:00

NERBIOI ITSASADARRAREN
GAINETIK
Areatza – Erippa Kaia

UZTAILAK 2 ZAPATUA



NUEVEUNO CIRCO CÍA. (Madril)

"Suspensión" – Zirkua (60 min). 8 urteik gorakoentzat.

Bost gizon eszenatokian. Normalak dira, agertoki batean igota daude. Denak desberdinak eta denak berdinak. Elkar zaintzen dute, elkarri bultza egiten diote eta elkarrekin ospatzen dute. Beren itzalen aurka labanak jaurtitzen dituzte, norberari begira eta norbere burua entzuteko geratuz.

Suspensión lana talde zoragarri baten bi urteko lanaren emaitza da. Malabarismoko koreografiak muturreraino entrenatu eta berrikusi dira, musika sorkuntzan zehar konposatu dute, eszenografia etengabea ari da eboluzionatzen, magia ase geratu arte entrenatu dute, gurasoen, neba-arreben eta aitieta-amamen grabazioak berregin dituzte gure proposamenaren muina bilatu arte. Gure buruarekin eta gainerako guztiekin egindako lana.

Esekidura da airera jaurtitako pilota, esekidura-unera iristen dena; edozer gerta daitekeen unea, grabitateari amore eman diezaioketun unea edo bestelako erabakiak har ditzakegun unea, pilota bat airean geratzen den unea, eta, horrela, agertokian denok eusten diogu arnasari. Horixe da *Suspensión*.

<https://nueveunocirco.com/>

EKAINAK 27 ASTELEHENA

22:00

ARRIAGA PLAZA



Ô QUEL DOMMAGE CIE. (Belgika)

"Room service" – Kaleko antzerkia (30 min). 9 urtetik gorakoentzat.

Room service errepresentazio bufoa da, non amatasunarekin eta amaren eta haurren harremanen estereotipoekin lotutako eguneroko jarduerak agertzen diren. Ikuskizun hori jolasari (hitzik gabekoa), pertsonaien arteko elkarrekintzari, soinu-unibertsoari eta ikus-efektuari lotuta dago. Haurtxoak, gizakiaren burua eta eskuak dituen txotxongiloak, pertsonaia absurdoki komikoa sortzen du, ahituta dagoen amaren koherentzia gabeko kapritxoak pairatzen dituen.

<https://www.oqueldommage.be/>

EKAINAK 29 EGUAZTENA

17:30 / 20:00

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren ondoan



PANORAMA KINO THEATRE (Suitza)

"Bilbaorama" – Kaleko antzerkia (100 min). Adin guztietako ikusleentzat.

Begiratu soilik ez, ikusi baizik. Ulertu soilik ez, sentiitu baizik. *Panorama* ikuskizunak antzerki-esperientzia berritzen du, egiturak bere ardatzean biratu eta errealitatea fantasia bihurtzen duen bitartean. Haren indarra da gure kontzientzia estetikoa piztea eta munduarekin dugun kontaktuari buruz berriz galdetzea. Irudimenezko mundu horretan, publikoa aktore bihurtzen da, gogoz kontra, eta rol nagusia egiten du.

Panorama ikuskizunak kale-antzerkiaren mugak aldatzen ditu, eta generoa berriz asmatzen du.

Panoramak antzerkirako duen ikuspegi berritzailea bere ardatzean 360° biratzen duen egitura berri batek ematen dio. Leiho batetik, ikus-entzuleek kanpoko mundua esperimendatzeko dute. Errotazio progresiboei dagokienez, mundu hori aldatzen, eboluzionatzen eta abstraitzen hasten da. Kanpoko aktoreen ekintzen eta esku-hartzeen bidez ez ezik, publiko orokorraren bidez ere bai, historiaren zati integral bihurtzen baita. Behatzen ari den pertsona ez da soilik antzerki-kontsumitzailea, baita sortzailea ere.

Tom Greder-ek sortu eta garatu zuen *Panorama*, antzerki-esperientzia espezifikoak, interaktiboak, probokatzaileak eta eraldatzaileak sortzeko.

www.kinopan.com

EKAINAK 27 ASTELEHENA	19:00	CASILDA ITURRIZAR PARKEA Bilboko Arte Ederren Museoa ondoan
EKAINAK 28 - 29	18:30	



PANPOTX KULTUR ELKARTEA (Euskal Herria)

"Kafe bat Casildarekin" – Kaleko antzerkia (4 ordu).
Adin guztietako ikusleentzat.

Casilda, Bilbon eragin handiko emakumea eta bere garaiko aberatsena izatera iritsi zen.

Ricardo, Bilboko Udaleko arkitektoen burua eta, esaten zuenez, modako arkitektoa.

Casildak idatzita eta ordainduta utzi zuen bere lurretan aisialdirako parke handi bat eraikitzeko. Ricardori eman zitzaion hura eraikitzeko eginkizuna. Parkea eraiki zen, baina Casildak ezin izan zuen ikusi, ezta gozatu ere.

Casilda Iturrizar eta Ricardo Bastida, 100 urte geroago, eta Bilboko Kalealdia Jaialdiaren magiari esker, bere izena daraman parkean kafea hartzeko geratu ahal izan dira, bere garaian elkarri kontatu ezin izan zioten guztia kontatu ahal izateko.

Casilda Iturrizar eta Ricardo Bastida pozik egongo dira kafe hau zuekin partekatu ahal izango dutelako. Bertatik bertara ezagutuko dugu bien historia zirrargarria, baita Bilboko Casilda Iturrizar parkeko sekreturik onenak ere.

EKAINAK 27 - 28 - 29

Arratsalde osoa

CASILDA ITURRIZAR
PARKEAREN inguruan



PISTACATRO + BILBOKO UDAL MUSIKA BANDA (Galizia / Euskal Herria)

"Orquesta de malabares" – Zirkua / Klown / Musika (75 min).
Adin guztietako ikusleentzat.

"Pistacatro" konpainiak bere ikuskizun berria aurkeztu du, "Orquesta de Malabares", Estatuko alor eszenikoko proiekturik originalenetako eta iradokitzaileenetako bat. Bi mundu -zirkua eta musika- agertoki berean elkartzen dira, batetik bisitatzen duten lekuko udal-bandako hogeita hamar musikari inguru eta bestetik 6 malabarista.

Kearen antzera, zirkua ate, leiho eta pitzadura guztietatik sartzen da etorkizunera begira duen bilakaera geometrikoan. Kasu honetan, udal-banda bateko atrilen eta musikarien aukien arteko espazio hutsak okupatzen ditu.

Sei malabarista eta banda bat, kasu honetan Bilboko Udala, eszenaratzen dituen ikuskizuna da *Orquesta de malabares*. Musikaren eta zirkuaren arteko harremana. Malabaristak aireko ballet honetako dantzariak dira kontzertu horretan. Klarineteak, saxoak eta tronpetak koadro espresionista bateko pintoreak dira; eta koadro horretan bolek, mazoek eta uztaiak musikak eta zirkuak transmititzen dituzten sentimenduak eta emozioak marrazten dituzte airean.

"Udal Bandak" eta bertako musikariek, beren erosotasun-eremutik kanpo, antzezlan batean parte hartzen dute, ia aktore gisa, ohikotik kanpoko gaiak eta estiloak interpretatuz. Azken batean, urre-koloreko instrumentuen, danbor handien, plateren, alkandora zurien, uniformeen eta obra klasiko bikainen ikuskizun bat da, baina baita praka motzen, elastiikoen, eguzkitako belaurrekoen, funkaren, bluesaren, poparen eta punkaren ikuskizuna ere.

<http://www.pistacatro.com/web/wp-content/themes/>

EKAINAK 28 MARTITZENA

22:00

ARRIAGA PLAZA



TOBIA CIRCUS (Italia)

"Equilibrium tremens" – Clowna (30 min). Adin guztietako ikusleentzat.

"Tobia Circus" konpainiak aurkezten duen ikuskizun berritzaile honetako solasaldiek Philip Sutil jaunaren mundu absurdora eramaten gaituzte. Gizon mehar eta zalua da bera, eta oso gustukoa du dantzan egitea. Pertsonaia txiki hau "oreka" ideiarekin liluratuta dago, grabitateari erronka egin nahi dio eta arintasunaz jabetu nahi du, bere publikoarekin partekatzeak.

Orekaz eta clown jolasez osatutako ikuskizun honetan, norabide aldaketak eta ustekabeak kateatzen dira, eta tarteka ukitu surrealistaren bat ere bai.

<http://www.tobiacircus.com/>

EKAINAK 28 MARTITZENA

18:00 / 20:00

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren ondoin



TRAKAMATRAKA (Euskal Herria)

"Matraka Culinary Center" – Música (50 min). 4 urtetik gorakoentzat.

Ongi etorri *Matraka Culinary Center*erra.

SUKALDE XELEBRE HONETAN EDOZER GERTA DAITEKE, EDO SOINUA ATERA.

Matraka chefak, auzoko rock star eta sukaldari handiena, bere bi pasioak uztartuta aurkeztuko dizkio publikoari: musika eta sukaldaritza.

Menu/kontzertu formatuan, haren plater musikal onenekin gozatuko dute entzuleek.

Sambatik rapera, punketik Indiako giro-soinuetara... Lapikoak, paella-ontziak, azenarioak, makarroiak, kuitxoak, erratzak eta sukaldeko koilarak izango dira bere banda bitxiaren fresnetako batzuk.

Erritmoz eta jokoz betetako ikuskizuna, freskotasunez eta alaitasunez betetako chef batek girotua, adin guztietako ikusleak entretenitu eta harrituko dituena.

<https://www.trakamatraka.com/>

EKAINAK 28 MARTITZENA

17:30

EKAINAK 29 EGUAZTENA

12:00

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren inguruetan



TRUCA CIRCUS (Andaluzia)

"Sopla!" – Zirkua (55 min). 6 urtetik gorakoentzat.

... Eta jaia iritsi zen. Denbora igaro da, baina guztiak daude berriz ere elkarrekin ospatzen. Beldurrak eta mugak atzean utzita, nork bere xarma zabalduz, asko baitira, benetako balentriak eginez. Bost diablo badaezpadako dantzazaleak, soka-baso bat, bizikleten desafio bat, oinak eta eskuak dituen helikoptero bat, erritmo handiko pilotak. Batzuek hegari egiten dute, eta beste batzuk lurrera botatzen dira malabarista anker batzuk saihesteko. Festa on bat musikarekin eta omendu ospetsu eta misteriosu bat. Berriz elkartzea une kezagarri, dibertigarri, aspergarri eta nahasgarriekin. *Sopla!* egoera bat da, atmosfera bat, likido arrosa, konfektia.

Zirku-karga handia du, zuzeneko musika, lan koreografiko ezin hobea eta pertsonaiak, nork aurkituko zain. *Sopla!* zirko-teknika ugari eta barbarik gabeko umore freskoa nahasian eta erritmo bizian.

Festa martxan jartzeko, aurreko mendeko 20ko hamarkadan inspiratu ziren hasiera batean, Espainiako gripearen pandemia gainditu zen garaian, beti ere gaur egunera egokituta eta komikiari keinu bat eginez. "20ko hamarkada zoriontsua" esaten zaion hori gogoan, etorkizun oparo eta pozgarria opa digute.

<https://www.trucacircus.com/>

EKAINAK 30 EGUENA

22:30

ARRIAGA PLAZA



GARGANTUA



ZIRKOZAURRE (Euskal Herria)

“Kobr3” – Zirkua (50 min). Adin guztietako ikusleentzat.

Kobr3 lana kobreakin inguruan doa eta kobreakin inguruan joanarazten ditu ikusleak. Hiru artistek konbinatzen dituzte malabarrak, objektuen manipulazioa, Cyr gurpila, contact bola eta mugimendu pausatua. Estetikoa, plastikoa. Konplizitatea, harmonia. Zirkua garaikidea koreografia zaizkion. Su eztiaren egosi eta azkartasun goxoz dastatzen da.

Gargantua et Pantagruel legenda frantsesean inspiratuta, Bilboko irudi ikoniko hau 1854an hasi zen haurrak irensten, eta, gaur egun ere, haren ahoa eta txirrista izuaren sinonimoa dira txikienentzat.

Antonio de Echaniz, “Etxaniz suhiltzailea” ezizenez, oso-osorik Bilbokoa den erraldoi horren sortzailea izan zen. Gargantua, erraldoia izateaz gain, aseezina da.

Bizitza ona eta munduko plazerrak gogora ekarri nahi zituen figura hori 1854. urtean atera zen lehen aldiz herriko kaleetara. Ordutik, milaka haur jan ditu kalera atara denean, hainbat aldaketa izan ditu eta desagertzeaz ere egon da.

Lehenengo aldiz 1854an atera ondoren, Gargantuaren irudi erraldoia osteko 20 urteetan ere atara zen, 1874an bomba batek suntsitu zuen arte. 1897ko jaietan, herriak hala eskatuta, *Gargantua* berririo agertu zen, eta 1934an Higinio Basterra eskultoreak beste bat sortu zuen. 1950ean azken aldiz agertu ondoren, *Gargantua* Deustuko billegi batean abandonatu zuten.

1962an, jaietara itzuli zen, eta, beste abandonu-aldi baten ondoren, berreraiki egin zuten, behin betiko, Bilboko Aste Nagusiarekin lotuta egoteko.

Gero eta ospe handiagoa duenez, Gargantuaren bertsio berriak sortu ziren.

<https://www.zirkozaurre.com/>

EKAINAK 30 EGUENA

18:00 / 20:30

PLAZA BARRIA

EKAINAK 27 - 28 - 29

Egun osoa

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren inguruetan

FOOD TRUCKS



TIPI TAPA

Bizkaitik *Tipi tapa* foodtrucka iritsi da; hanburkesak, saltxitxa-ogitaratekoak eta askotariko pintxoak eskainiko ditu.

Eta baita etxeko kroketak eta patata-tortilla ere. Ez galdu aukera!

EKAINAK 27 - 28 - 29	Egun osoa	CASILDA ITURRIZAR PARKEA Ahate Urmaelaren inguruan
-----------------------------	------------------	--




JAMON OSTRUCK


Gure kartan ITSASOKO eta LURREKO produkturik onenak eskaintzen dizkizuegu: ostrak, moulak, izkirak, focaccia, gazta-pasteltxoak eta etxeko gyoza paregabeak... Dena *Jamon Ostruck* erara. Esperientzia paregabea!

EKAINAK 27 - 28 - 29	Egun osoa	CASILDA ITURRIZAR PARKEA Ahate Urmaelaren inguruan
-----------------------------	------------------	--





- | | | | |
|--|--|---|---------------------------------|
| 1 AMER KABBANI (Katalunia) | 11 KOLEKTIV LAPSO CIRK (Katalunia) | 21 MYSTÉRIEUSES COIFFURES (Euskal Herria-Iparaldea) | 31 TRAKAMATRAKA (Euskal Herria) |
| 2 BRASSASS (Argentina) | 12 LA INDUSTRIAL TEATRETA (Katalunia) | 22 NACHO VILAR PRODUCCIONES & YLLANA (Murtzia) | 32 TRUCA CIRCUS (Andaluzia) |
| 3 CHRIS IRIS (Alemania) | 13 LA MACANA (Galizia) | 23 NICOLE & MARTIN (Suitza) | 33 ZIRKOZAUURRE (Euskal Herria) |
| 4 DANTZAZ (Euskal Herria) | 14 LA TRAPEIONISTA CÍA. (Euskal Herria - Nafarroa) | 24 NOSTRXLADAMUS (Aragoa) | |
| 5 DAS ARNAK (Frantzia) | 15 LE PIANO DU LAC (Frantzia - Asturias) | 25 NUEVEUNO CIRCO CÍA. (Madril) | |
| 6 DELREVÉS DANZA VERTICAL (Katalunia) | 16 LES MALLES CIE. (Suitza) | 26 Ô QUEL DOMMAGE CIE. (Belgika) | |
| 7 ERTZA (Euskal Herria) | 17 LES RUSTINES DE L'ANGE (Frantzia) | 27 PANORAMA KINO THEATRE (Suitza) | |
| 8 HIKI TEATROA & OINKARI DANTZA TALDEA (Euskal Herria) | 18 LOS GALINDOS (Katalunia) | 28 PANPOTX KULTUR ELKARTEA (Euskal Herria) | |
| 9 HORTZMUGA TEATROA & DEABRU BELTZAK (Euskal Herria) | 19 MADUIXA CÍA (Valentziako Erkidego) | 29 PISTACATRO - BANDA MUNICIPAL DE BILBAO (Galizia - Euskal Herria) | |
| 10 KEEP COMPANY (Frantzia) | 20 MANOLO ALCÁNTARA (Katalunia) | 30 TOBIA CIRCUS (Italia) | |



2 BRASSASS (Argentina)

5 DAS ARNAK (Frantzia)

7 ERTZA (Euskal Herria)

10 KEEP COMPANY (Frantzia)

14 LA TRAPECIONISTA CÍA.
(Euskal Herria - Nafarroa)

16 LES MALLES CIE. (Suitza)

17 LES RUSTINES DE L'ANGE (Frantzia)

21 MYSTÉRIEUSES COIFFURES
(Euskal Herria - Iparralde)

23 NICOLE & MARTIN (Suitza)

26 Ô QUEL DOMMAGE CIE. (Belgika)

27 PANORAMA KINO THEATRE (Suitza)

28 PANPOTX KULTUR ELKARTEA (Euskal Herria)

30 TOBIA CIRCUS (Italia)

31 TRAKAMATRAKA (Euskal Herria)